


# 1. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

# **HEZKUNTZARAKO**

# **ESKUBIDEA**



**LHKO LEHEN ZIKLOA**

1

## Hasierako batzarra: zer da ikastetxea?

Helburua: ikastetxeak zer gauza dituen eta zer ikasten duten identifikatzea.

Galdera orientatzaileak:

**¿Zer egiten dugu eskolan?**

**¿Nor ikusten dugu egunero?**

**¿Zer gauza erabiltzen ditugu ikasteko?**



2

## Kanpainaren sarrerako bideoa ikusiko dugu. Bideoaren ondoren – Elkarrizketa taldean

Helburua: bideoaren mezua ulertzea

Galderak:

**¿Zer ikusi duzu bideoan?**

**¿Zergatik da garrantzitsua eskolara joatea?**

**¿Munduko haur guztiak joan daitezke eskolara?**

Ahozko errefortzua: **“Ikastea haur guztiok dugun eskubidea da, zuk zeuk ere baduzuna.”**



3

## Ipuinaren irakurketa dramatizatua Ipuinaren eranskina, margotzeko orriak eta margotutakoak.

Iradokizuna: erabili txotxongiloak, irudiak edo mozorroak. Ideia ona izan daiteke haur bakoitzari aukeratutako txotxongiloaren irudi bat banatzea, margotu dezaten eta guraize edo puntzoi batekin ebaki dezaten, gero etxera eraman ahal izateko.

Etenaldia egingo dugu tarteka, honako galdera hauek egiteko:

**¿Zertan ari dira Sofia, Tomas eta Klara?**

**¿Zer iruditzen zaizue haur batzuek eskolara joateko aukerarik ez izatea?**



## Gogoeta taldean: zer behar du ikastetxe batek ikasteko?

4

Jarduera: irakurri ondoren, imitatu ipuinaren amaierako eszena.

Egin galderak txotxongilo eran:

**¿Zer behar du zure ikastetxeak bertan ikasi ahal izateko?**

**¿Garrantzitsua al da ipuinak, arkatzak, jolasak, jolastokia... izatea?**

\*Horma-irudi bat egin dezakezu taldeak emandako erantzunekin:

Gure ikastetxeak ..... ditu, ikastea eskubide bat delako.

\*Ipuineko irudiak banatu ditzakezu, margotu ditzaten eta ipuinaren sekuentzia bat egin dezaten.



5

## **Ikasleen eskubideak eta betebeharrak eskola-ingurunean**

Eskubideak ditugula jakitez gain, gure betebeharren erantzule gara eta jakin behar dugu baita ere.

Kartel bat egin dezakegu eskubide eta betebeharrekin, eta ikasgelan itsatsi. Edo horietako bakoitza orri batean idatz dezakegu, eta gometsekin edo marrazkiekin apaindu. Kolore bat erabil dezakegu eskubideetarako, eta beste batzuk betebeharrarako. Eskubideen eta betebeharren fitxa, eta jolas interaktiboa




# ERANSKINAK

HAU EZUSTEKOA

IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

OTOITZA



**LHKO LEHEN ZIKLOA**

## 2. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA **¡NIRE IKASTETXEAN NIK ERABAKITZEN DUT!**



## Helburuak

- Parte hartzeko eskubidea haurren eskubideen artean aitortzea.
- Parte-hartzea gauzatu daitekeen eskolako egoerak identifikatzea.
- Espazio demokratikoak eta entzute aktibokoak sustatzea ikasgelan.
- Komunikatzeko, argudiatzeko eta erabaki kolektiboak hartzeko trebetasunak garatzea.



### 1. jarduera: Nola parte hartu daiteke Lehen Hezkuntzako ikastetxean?

Feed back bat egin ikasleekin, ikastetxean parte hartu dezakegun hainbat egoerari buruz:



#### Ikasgelan:

- Jardueretarako ideiak proposatzea (jolasak, proiektuak, sormen-lanak).
- Erabakietan parte hartzea (adibidez, taldearen izena edo gela nola apaindu aukeratzea).
- Gatazkak konpontzeko edo bizikidetzaren hobetzeko batzarretan parte hartzea.
- Taldekako ordezkariak aukeratzea, zuzendaritza-taldeari ideiak edo eskaerak eramateko.

#### Ikaskuntzetan:

- Ikasteko interesgarriak iruditzen zaizkien gaiari buruzko iritzia ematea.
- Ikasgelan lantzeko liburu, ipuin edo abesti batzuk aukeratzea.
- Ideiak ematea talde-lanetarako edo ebaluazio parte-hartzailerako.
- Nola ikasten duten eta zerk laguntzen dien hausnartzea.



#### Eskolako bizitzan:

- Eskola-jardueretan laguntzea: ekitaldiak, azokak, jardunaldi solidarioak, ingurumen-kanpainak.
- Ikasleen kontseiluan parte hartzea (halakorik badago).
- Ideiak edo iradokizunak uzteko karteldegia edo postontziak egitea.
- Jolastokirako, liburutegirako edo aisialdirako hobekuntzak proposatzea.



**Eskubideak adieraztean:**

-Hitz egitea entzuten ez zaiela edo zerbait bidezkoa ez dela sentitzen dutenean.

-Errespetuz, isekarik eta indarkeriarik gabe tratatuak izateko eskubidea defendatzea.

-Eragiten dieten erabakiak hartzen direnean beren ikuspuntua ematea.

## Parte hartzea...

- **Parte izatea da**
- **Ahotsa izatea eta esan behar dudana entzutea da**
- **Beste batzuekin batera jardutea da**
- **Erabakiak elkarrekin hartzea da**



## 2. jarduera. Mikrofono irekia

### Helburuak

- Hurren parte-hartze aktiboa eta adierazpena sustatzea.
- Eskolan parte hartzeko eskubidearen ulermena sustatzea.
- Ahozko komunikaziorako eta beren buruan konfiantza izateko trebetasunak garatzea.
- Ideiak eta sentimenduak partekatzeke errespetuzko espazio abegikor bat sortzea.

### Metodologia

1. Aurretiatzko prestakuntza:

- Mikrofono ireki bat zer den azaltzea ikasleei: denek hitz egiteko eta pentsatzen dutena adierazteko unea.
- Partekatzea gustatuko litzaiekeen gai buruz hitz egitea (adibidez, eskolan zer gustatzen zaien, hobetzeko ideiak, kontatu edo eskertu nahi duten zer bait).



## 2. Espazioaren antolaketa:

- Txoko eroso bat sortzea, eskuz esku pasatuko den mikrofono batekin (objektu sinboliko bat izan daiteke, hala nola hagatxo bat edo peluxe bat).
- Oinarrizko arauak ezartzea: errespetuz entzutea, eskua altxatzea hitz egiteko, ez etetea, besteen ideiak baloratzea.

## 3. Jardueraren garapena

- Haurrei gonbita egitea eskolarekin edo parte hartzeko eskubidearekin lotutako pentsamenduak, esperientziak edo ideiak parteka ditzaten.
- "Mikrofonoa" dutenean pentsatzen edo sentitzen dutena adieraztera animatzea haurrak.
- Guztiek hitz egiteko aukera izan dezaten erraztea, lotsatienei lagunduz.

## 4. Amaierako gogoeta

- Esku-hartzeen ondoren, hitz egitean eta ikaskideei entzutean nola sentitu diren azaltzea.
- Beren ideiak adieraztearen eta besteei entzutearen garrantzia azpimarratzea, parte hartzeko duten eskubidearen zati gisa.
- Partekatutako ideiak laburtzea eta guztiei eskerrak ematea parte hartzeagatik.

## **Gutxi gorabeherako denbora**

30-45 minutu

## **Baliabideak**

- Mikrofono sinboliko gisa balio duen objektu bat.
- Zirkuluan esertzeko espazio erosoak.
- Parte-hartzearekin eta hitza izatearekin lotutako kartelak edo irudiak.

**3. jarduera. "Zer behar du ikastetxe batek guztiontzako leku bikaina izateko?"**



## Helburuak

- Pentsamendu kritikoa eta ahozko adierazpena sustatzea.
- Ikaskideen ideiekiko eta iritziekiko errespetua sustatzea.
- Hezkuntzan inklusioari, ekitateari eta kalitateari buruzko oinarrizko kontzeptuak txertatzea.
- Eztabaidarako eta elkarrizketarako trebetasunak garatzea, errespetuzko giroan.

## Metodologia

### 1. Aurretiazko prestakuntza:

- Hurrei azaltzea gai honi buruz hitz egingo dutela: zer behar da ikastetxe bat haur guztientzat ikasteko eta ondo egoteko leku egokia izan dadin?
- Kontzeptu errazak aurkeztuko ditugu:
  - Inklusioa: denek parte hartu ahal izatea eta ongi etorriak sentitzea.
  - Ekitatea: ikasteko behar dutena izatea guztiek.
  - Kalitatea: eskola gauza asko ikasteko eta dibertitzeko lekua izatea.

o

### 2. Eztabaidaren antolaketa:

- Haurrak talde txikitik edo bikoteetan banatzea.
- Gidatzeko galdera bat planteatzea: "Zer behar du ikastetxe batek inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa izateko?"
- Talde bakoitzari gonbita egitea ideiak pentsatu ditzaten eta esku hartze txiki bat prestatu dezaten, gero guztiekin partekatuzko.

### 3. Eztabaidaren garapena:

- Denak biribilean biltzea.
- Talde edo haur bakoitzak bere ideiak partekatuko ditu, mikrofono sinbolikoaren laguntzarekin.
- Besteei entzuteko eta galdetu edo iruzkinak egiteko eskatzea, errespetuz betiere.
- Adibide errazak erabil ditzakete: "Denek lagunak izatea", "Irakasleek guri laguntzea", "Denontzako jolasak egotea", etab.

### 4. Gogoeta eta itxiera:

- Sortu diren ideia nagusiak laburtzea.
- Ikastetxe on batek denoi ikasten eta ondo sentitzen laguntzeko gauzak izan behar dituela nabarmentzea.
- Galdetu hurrei zer ideia gustatu zaizkien gehien edo zein uste duten direla garrantzitsuenak.

## Gutxi gorabeherako denbora

30-40 minutu

### Baliabideak

- "Mikrofono" sinboliko bat.
- Gako-hitzak dituzten kartelak: inklusioa, ekitatea, kalitatea.
- Zirkuluan jartzeko espazioa, elkarrizketa errazteko.

## 4. jarduera: "Nire ahotsa eskolan: gure iritzien postontzia sortzen"



### Helburuak

- Parte hartzeko eta iritzia emateko eskubidea sustatzea.
- Sormena eta talde-lana sustatzea.
- Haurrei beren ideiak eta kezak errespetuz nola adierazi erakustea.
- Eskolan espazio bat sortzea, denek iritzia emateko eta entzunak izateko aukera izan dezaten.

### 1. fasea: iritzien txokoa diseinatzea eta apaintzea

#### Metodologia

- Ikasgelan edo eskolako leku ikusgarri batean txoko berezi bat sortzen laguntzeko gonbita egingo diegu haurrei.
- Txoko horretan, kartel handi bat jarriko dute, honako mezu hauekin: "Nire ahotsa eskolan" edo "Iritzien postontzia".
- Elkarrekin, kartela diseinatu eta apainduko dute, marrazki, kolore eta letra deigarriak erabiliz. Hitz egiten ari diren haurren marrazkiak, irribarreak, bihotzak edo parte hartzea eta errespetua adierazten duten sinboloak izan daitezke.
- Beste apaingarri batzuk ere egin ditzakete, hala nola izarrak, elkarrizketa-globoak edo karikaturak, haurrak beren ideiak adierazten erakusten dituztenak.

### 2. fasea: iritzien postontzia egitea

#### Materialak

- Kartoia, kaxak edo zapata kaxa handi bat.
- Koloretako papera, errotuladoreak, eranskailuak, guraizeak (heldu baten laguntzarekin).
- Zinta itsasgarria edo kola.

## Urratsak

### 1. Postontziaren diseinua:

- Hurrek kutxa apainduko dute, postontzi deigarri eta lagunkoi bihurtzeko.
- Goiko aldean, zulo bat egin dezakete, iritziak sartzeko.
- Marrazkiekin eta hitzekin apaindu, adibidez: "Iritziak", "Ahotsa", "Ideiak".

### 2. Pertsonalizazioa:

- Beraien izena edo taldearena jarriko dute.
- Ideiak adierazteko leku segurua dela adierazten duen irribarra edo sinboloa jar dezakete.

### 3. fasea: postontzia nola erabili eta zertarako balio duen azaltzea

#### Azalpen erraza

- Hurrei azalduko diegu postontzia leku berezia dela, beren iritziak, ideiak, iradokizunak edo eskolan hobetu nahiko lituzketen gauzak uzteko.
- Esango diegu zerbait kontatzeko edo ideia bat partekatzeko duten bakoitzean, paper batean idatzi eta postontzian utz dezaketela.
- Haien iritziak garrantzitsuak direla eta iritzi guztiak errespetuz entzungo direla nabarmenduko dugu.

#### Motibazioa eta arauak:

- Haurrak postontzia erabiltzera bultzatu zerbait esateko duten guztietan.
- Gogoratu sentimenduak, eskola hobetzeko ideiak edo gustuko dituzten gauzak adieraz ditzaketela.
- Postontzia espazio segurua eta konfidentziala dela azpimarratu behar da, eta haien ahotsak aintzat hartzen direla.

### 4. fasea: motibazioa eta konpromisoa

- Dinamika txiki bat egingo dugu haurrak postontzia erabiltzera motibatuzko: adibidez, "ideien zirkulu" bat, non bakoitzak eskolan kontatu edo hobetu nahiko lukeen zerbait esaten duen.
- Zeremonia txiki bat egin daiteke, ideiak partekatzen dituztenei "ahots-txartelak" edo "parte hartzeagatiko dominak" emateko, beren iritzia emateko balioa indartzeko.
- Azkenik, etorkizuneko bileretan edo une berezi batean hurren iritzi batzuk irakurtzeko eta iritzi horiei erantzuteko konpromisoa hartuko dugu, hurrek beren ahotsa baloratzen dela ikus dezaten.

## **Gutxi gorabeherako denbora**

Ordubete, gutxi gorabehera

